



## **ALE-K ENPRESAREN PARTAIDETZA EREDU INKLUSIBOA AURKEZTU DU EUROPAKO BATZORDEAN**

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek (ALE) enpresaren partaidetza eredu inklusibo bat aurkeztu du Europako Batzordearen (EB) Gizarte Ekonomiako zuzendaritzak antolatutako topaketa batean, European Social Economy Regions 2020 (Gizarte Ekonomiako Europako Eskualdeak) programaren baitan. Topaketa horretan, Alemaniako, Frantziako eta Irlandako eskualde zein hirietako ordezkariak gizarte ekonomia sustatzeko egindako jardunak azaldu zituzten, bai eta pertsonak komunitateen garapenean duten parte hartzea bultzatzeko egindakoak ere.

Ekitaldia hilaren 8an egin zen, asteartean, telematikoki, eta ALEren ordezkari Ana Agirrek parte hartu zuen. Jose Maria Arizmendiarrieta Mondragon kooperatiba mugimenduaren sortzailearen printzipioak inspirazio iturri dituen enpresaren partaidetza eredu inklusiboan oinarritzen diren balioak eta jarduera ildoak azaldu zituen. ALEk eredu hori sustatzen eta bultzatzen du, zeinak adostasun zabala duen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako indar politiko, sozial eta enpresarialen artean. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, azken bi urteotan, langileek enpresetan parte har dezaten eredu hori bultzatzeko eta sustatzeko agindua dute, bi ganbera horietan dauden talde parlamentarioek aho batez hala erabakita.

Bilera Europako Batzordearen (EB) Gizarte Ekonomiako koordinatzaile Zuzana Dutkovak eta zuzendari Ulla Engelmannek aurkeztu eta moderatu zuten, hurrenez hurren. Era berean, honako hauek parte hartu zuten: Alemaniako Bavaria estatuko ordezkariak, zeinek Silicon Vilstal ekimenaren berri eman zuten –ekimenak gune horretako ekintzailatza eta ekonomia soziala bultzatzen ditu–, itsasoz haraindiko Frantziako Mayotte departamenduko ordezkariak –Indiako ozeanoan dagoen uharte bat da– eta Irlandako Dublin hiriburuko ordezkariak. Europako hainbat herrialdeetako ordezkariak ere izan ziren topaketan, eta baita Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunean (EB) duen ordezkaria ere: Marta Marin.

Ana Agirrek, bere mintzaldian, abenduaren 3an Eusko Jaurlaritzak, ALEk eta ASLEk antolatutako jardunaldia ere izan zuen hizpide, eta langileek enpresan duten parte hartzeari beste bultzada bat emateko balio izan zuela adierazi zuen. Iñigo Urkullu lehendakariak eta Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Enplegu eta Lan sailburuak enpresaren partaidetza eredu inklusiboak duen garrantzia nabarmendu zuten, ordezkatzeko dituen eta inplizituak dituen balioengatik, batez ere oraintxe daukagun krisi une honetan.

*Ekitaldian, hiru foru aldundietako Ekonomia Sustapeneko diputatuek eta Nafarroako Gobernuako Enpresa Politikako zuzendari nagusiak ere parte hartu zuten.*

*Topaketak, era berean, ESER 2021 agenda (European Social Economy Regions) eta horrek ekonomia sozialaren garapenean eta sustapenean aurrera egiteko dituen helburu eta konpromisoak mahai gainean jartzeko balio izan zuen, bai eta eskualdeen garapen sozialaren benetako protagonista gisa pertsonen parte hartzea areagotzeko egin behar diren jarduerak aipatzeko ere.*